

FAMILIA LAGUNA PROGRAMA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HIRU LURRALDEETARA ZABALTZEA.

- Ekimena Gipuzkoan sortu zen duela hamarkada bat, eta beste herrialde batetik Euskadira etorri berri diren familiak adin bereko haurrak dituzten familia euskaldunekin harremanetan jartzen ditu.
- Elkarrekin Koop Txikik Gipuzkoako 18 ikastetxetan egiten du lan gaur egun; eta, Aldaika Heziketa Elkartearen eta Adsis Fundazioaren bidez Bilbo eta Gasteizeko beste bi ikastetxeetan martxan jarriko da.

Irun, 2024/02/19

Familia Laguna, kulturarteko familia-akonpainamendu programa bat da, hezkuntzaren eta komunitatearen esparruan garatzen dena, eta beste herrialde batzuetatik etorri berri diren familiak adin bereko seme-alabak dituzten euskal edo tokiko familiekin harremanetan jartzen dituen.

Elkarrekin Koop Txikik hamarkada bat darama proiektu honen buru Gipuzkoan, eta dagoeneko 18 ikastetxetan dago martxan: 8 Donostian, 6 Erreterian eta 3 Andoainen. Bertako udaletxeek finantzatu.

Gaurko ekitaldian, Familia Laguna programaren ekintza-esparrua Bizkaira eta Arabara zabalduko dela ezagutzera eman da, programara Bilboko Arangoiti Ikastetxe Publikoa eta Araban Gasteizko Adurtza Ikastetxe Publikoa gehituta. Gainera, Gipuzkoan, Irungo Dunboa ikastetxea Publikoa batuko zaio programari. Azken hau, gaurko aurkezpenaren agertoki izan da.

Honako zabaltzea, Elkarrekin Kooperatibak, Bilboko Aldaika Hezkuntza Elkartearekin eta Gasteizko Adsis Fundazioarekin elkarlanean egingo du, eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak diruz lagundua egongo da.

Ekitaldian izan dira Nerea Melgosa Vega Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua, Julen Urkia Dunboa HLHIko ikastetxeko zuzendaria, Lola Guigo eta Garazi Zarautz Elkarrekin elkarteko koordinatzaileak, eta Gotzone Arana eta Xiomara Garache programan parte hartu duten bi familia. Azken horiek programan izandako esperientzia partekatu dute.

Nerea Melgosa sailburuak, besteak beste, inplikaturako ikastetxeak zoriondu ditu, eta Migrazioarako Euskal Itun Soziala aipatu du, Familia Laguna bezalako programak garatzearen garrantzia azpimarratuz. Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana gogorazi du biata ere. "Onartu behar dugu kulturartekotasuna dela gizarte-harreman berrien oinarria".

Garazi Zarautz eta Lola Boluda elkarteko koordinatzaileek bestalde, "urte hauetan Familia Laguna martxan jartzeak agerian utzi du ikastetxeek kulturarteko ikuspegia txertatu behar dutela, hezkuntza-komunitate inklusiboa lortzeko".

Era berean, adierazi dutenez, "programaren emaitza positiboek agerian utzi dute kulturarteko bizikidetzaren hobe dagoela eskola-komunitatean, bai eta iritsi berriak diren familien egokitzapenean ere, bai ikastetxera bai bizi diren udalerrira". Beraien esanetan, "jarrera arrazisten prebentzio handiagoa dago", eta ikasle berriek "euskararekiko motibazio handiagoa" dute.